

txintxarri



Ohiturari eusten

Eguraldi ona lagun, herritar ugari bildu da Azkorteako ermitara Santa Krutz eguna ospatzera / 4

TXINTXARRI

Harremanak lantzen

Ostadar Ipar Martxako kideak Girona aldean izan dira Pazko Astean / 6-7

Aire Garbiak
manifestazioa
egingo du
larunbatean, gaikako
bilketaren alde / 5

Iraia Iparragirrek
partida historikoa
jokatuko du
Realarekin: Espainiako
kopako finala / 12

**ATE IREKIEN
JARDUNALDIAK**



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

MAIATZA:
Larunbata 11 eta 18 | 11:00etan
Asteazkena 15 | 18:00etan

zatoz gu ezagutzera!!



www.lhusurbil.eus



Zerrenda osatzen duten hamazazpi lagunetako lehen zortziek parte hartu zuten aurkezpenean. TXINTXARRI

Eskarmentua eta kaleko jendea batu ditu EAJK

Jon Antxordoki buru izango du hautagaitzak; aurpegi berriak eta independenteak batzeko ahalegina egin dute jeltzaleek. Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan lortutako emaitza onak errepikatu nahi dituzte hilabete amaierako bozketan

Txintxarri

Jon Antxordoki da Lasarte-Oriako EAJren alkategaia. Berarekin batera udal hautagaitza osatzen duten kideen aurkezpena egin zuen ostegun arratsaldean alderdiak Askatasuna parkean. Aurpegi berriak dituzten zerrendako lehen zortziek talde argazkia egin ondoren, buruak hartu zuen hitza.

Talde mota aldatu dute. Gazteagoa da, irekia eta anitza, alderdikideekin batera independenteak ere batu baitituzte; "kaleko jendea", askotariko errealitate eta alorretako jendea sartzeko. "Lasarte-Oriaren izaeraren adierazle bikaina". Atzean, berriz, "udal eta goi mailako kudeaketan eskarmentu handia" duten kideak daude "sostengua ematen".

Batura horren irmotasuna nabarmendu zuen Antxordokik. "Herria gidatu nahi dugu Lasarte-Oria hobea egiteko, ilusioz beterik eta gure herriko jendearengan sinetsiz. Gure herriaren alde egingo duen hautagaitza sendoa osatzen

dugu". Baita herritarren eta erakundeen arteko elkarlanean "sinetsi eta praktikan jartzen" ohituta daudela ere. "EAJren hautagaitza osatzen dugunok Lasarte-Oriako gizarte eragile ehunean sinesten dugu eta ohituak gara auzolanera, Lasarte-Oria barru-barrutik ezagutzen dugu".

Ildo beretik, azken bi legealdietan bai EH Bildurekin bai PSE-EErekin akordioetara heldu eta egitasmoak gauzatzeko gai izan direla gogoratu zuen hautagaiak. "Gauza asko egin ditugu batarekin nahiz bestearekin, ez daukagu arazorik gauzak aurrera eramateko herriarentzat interesgarria baldin bada.

Pozik daude orain bi aste Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan izandako emaitzekin, 2015eko udal hauteskundeetakoekin alderatuta %48 hazi baitira. Badakite ez direla gauza bera, baina zerrendaburuak uste du haietan nahiz Eusko Jaurlaritzakoetan alderdian konfiantza jarri dutenek oraingoan ere egin

dezaketela. "Amonak zioen moduan, etxerako moduko ekipoa da".

Hamabost egun barru etxeetan banatuko dute hauteskunde programa.

Zerrendakideak

- Jon Antxordoki
- Boris Nogales
- Estitxu Alkorta
- Ainara Elizetxea
- Larriz Garcia de Andoin
- Jon Alkorta
- Itziar Arroyo
- Sergio Lucas
- Goizalde Pildain
- Juan Mari Iradi
- M^a Jesus Iraola
- Jexux Artetxe
- Araceli Diaz de Alda
- Oscar Sevilla
- Lurdes Iartza
- Juan M^a Alkorta
- Maria Soledad Tejeria
- Santos Aranzazistoki
- M^a Jose Egurza
- Luis M^a Ansa



Juan Carlos Cano eta Alejandro Saenz, hautagaitzaren aurkezpenean. TXEMA VALLES

"Alternatiba erreala" izateko asmoz aurkeztuko da Saenz

Juan Carlos Canok lagunduta ezagutarazi du zerrenda. Foru hauteskundeetan PPko bigarrena da Donostialdean

Txintxarri

Lasarte-Oriako PPK ostiral goizean aurkeztu zuen datozen udal hauteskundeetarako zerrenda. Burua, aurreko aldian bezala, Alejandro Saenz izango da. Batzar Nagusietarako alderdiko hautagai Juan Carlos Cano alboan zuela aurkeztu zuen hautagaitza. Kanpainan zehar ere gertu izango du lasarteoriatarrak, izan ere, Batzar Nagusietarako Donostialdeko zerrendan bigarren postuan baitago.

2015eko "ilusio eta gogo berarekin, baina eskarmentu handiagoarekin" saiaturiko da oraingoan Saenz, "Lasarteri behar duen eta merezi duen bultzada emateko". Orain arte udalean agindu duten alderdiei "alternatiba erreala" PP dela uste du, eta proposamen zehatzak kanpainak iraungo dituen bi asteetan azalduko ditu.

Agerraldia, ordea, legegintzaldiaren inguruko gogoeta egiteko baliatu zuen. Herri kudeaketa aldatu nahi du, fokua herritarrengan jarriz. Agintean egon diren alderdiei euren buruari begira jardutea egotzi zien, "elkarri mokoka dabilzan bi anai bezalakoak dira"; eta oposizioko alderdiei "zentsugabekeria" horretan aktiboki parte hartu izana.

Azken lau urteotako Jesus Zaballosen agintaldiaren hutsuneak nabarmendu ditu;

legegintzaldi hasieran jarri zizkion helburuak bete ez dituela zehaztu ditu, adibide ugariarekin. Besteak beste, ez da kode etiko bat onartzeko gai izan, ez du Usurbilgo alkatearekin akordioarik erdietsi harmailadun kirol azpiegitura bat egiteko, gauza bera Donostiakoarekin Landaberriko bidea konpon dezan, Kotxeras gunean egin beharreko etxebizitzetako bakarra ere ez dute eraiki...

Enpleguari eta fiskalitateari dagokionean, egindakoarekin bereziki kritikoa izan zen popularra. Herrian lana sortzeko "dirua, borondatea edo denbora" jarri ez duela salatu zuen, baita udalerriko fiskalitate altua gaitzetsi ere: "Jesus Zaballos Gipuzkoako PSEko frakdun kobratzailea da. Krisia gehien pairatu duten familiekiko sentsibilitate falta erakusten du".

Horren aurrean, lau urteotan "udalerrri moderno, garden eta parte hartzailea" bultzatzeko aurrera eramane dituzten 50 emendakinak gogora ekarri zituen. Esaterako, sanpedroetako jaietako omendua herritarrek aukeratzea, alkateak beharrezko edota akordioak lortu izana aurrekontuetan enplegu, kirol, gizarte zerbitzu eta erlijio alorreko emendakinak barneratzeko, esaterako, kalistenia parke bat Atsobakarren, aparkalekuak edota elkarrengatik gune berriak...



Elkarrekin-Podemos zerrendako lehen laurek aurkeztu diete euren programa alderdiko jarraitzaileei. TXINTXARRI

2015eko emaitzak hobetzea helburu

Elkarrekin-Podemos izenarekin aurkeztuko da udal hauteskundeetara Podemosek Equok eta Ezker Anitzak osatutako koalizioa. Zerrendarekin batera, partaidetza eta gardentasuna oinarri dituen programa aurkeztu du David Ares alkategaiak

Txintxarri

Ahal du Lasarte-Oria Puede alderdia Elkarrekin-Podemos izenpean aurkeztuko da udal hauteskundeetara. Barne bozketa irabazita, David Ares da alkategaia. Tania Rodriguez, Miguel Angel Tolosa eta Beatriz Aygues hautagaiak alboan, agerraldia egin zuen asteazkenean. Blas de Lezoko lokalera bertaratu ziren alderdiko jarraitzaileei zerrendakideak eta programaren oinarriak ezagutarazi zizkieten.

Aresen ustez, "ohorea" da zerrendaburua izatea eta "eskertuta" dago hautagaitza babestu duten kideekin. "Konpromiso honi ahalik eta ondoen erantzutea da nire asmoa, gogor lan eginez lasarteoriarren alde, eta jendea inplikatzeko, herriko kontuekiko interesa piztuta". Talde "ona" osatu dute eta lau urteotako eskarmentuak ere modu eraginkorragoan lan egiteko balioko diela uste du hautagaiak. Hiru zinegotziak mantendu edo haztea espero dute,

Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan bigarren indarra izan baitziren. "Desastrea izango litzateke urteotan irabazitako tartearen zati bat galtzea. Beste edozein alderdigatik ordezkaturia sentitzen ez den herritargo zati baten ordezkariak baikara".

Legealdian egindakoari ere tartea egin zion. Hainbat neurri garrantzitsutan "ezinbestekoak" izan direla nabarmendu zuen, besteak beste, Basaundi Bailara urbanizatzea edota zahar egoitza aldundiari lagatzea.

Iraunkortasuna, giltzarri

Udal programa koalizioko kide diren Equo, Podemos eta Ezker Anitzak adostu dute, bakoitzaren memoria politikoetan oinarrituta

UDAL EREDU IREKIA, GARDENA ETA PARTE HARTZAILEA NAHI DUTE, HERRITARRAK ARDATZ DITUENA

eta Lasarte-Oriara egokituta. Xedea herriak "behar eta merezi duen" udal eredia sortzea da, "irekia, gardena eta parte hartzailea". Bi oinarri nagusi ditu: partaidetza eta gardentasuna, herritarrak ardatz hartuta jardunez erdietsiak. Halaber, aurrekontu parte hartzaileak %4ra igo ditu, milioi bat euro ingurura.

Beste ardatz giltzarri bat iraunkortasuna da, merkataritzari eta mugikortasunari lotuta, batik bat. Horiei dagokienean, bosgarren edukiontzia sustatu eta lurpeko bilketaren arazoa konpondu nahi dute, baita norberaren arabeko tasa sistema sortu edo ontzien itzulera diruarekin saritu. Era berean, gizartean ere eragina badu. Proposamenen artean, pisu tutelatuak adinekoentzat eta etxebizitza kolaboratiboak gazteentzat; Emakumeen Etxea sortzea, hauen parte hartzea areagotzeko; eta euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ekimenak ere badira.



TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Olentzero, aterpe eske

Olentzero eta euskara estuki lotuta daude Lasarte-Orian. Gure hizkuntzaren aldeko *ekintzaile zoro* batzuek bultzatu zuten orain dela 30 urte baino gehiago Olentzeroren desfilea, haurrak euskararen ingurura modu atsegin batean hurbiltzeko helburuz. Ttakun Kultur Elkarte sortu gabe zegoen artean, eta egungo egoerarekin alderatuta, hizkuntzaren egoera oso desberdina zen. Eurria gogoz egin du ordutik, urte mordoia igaro dira, eta, zorionez, gauza asko aldatu dira. Neurri handi batean, *ekintzaile zoro* horiei esker, eta azkeen urteetan, baita ere udalaren laguntzari esker.

Beste alor askotan, ordea, gauzak ez dira horrenbeste aldatu, tamalez. 2019. urtean, Olentzeroren desfilea egonkortuta dago guztiz; edozein aldetik begiratzen dela ere, arrakasta nabarmena da. Eskola guztietako umeak elkartzen dira Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotx agurtzeko. Ilusioa eta umorea tresna paregabeak dira etorkizuneko herritarrak euskarara gerturatzeko.

Haatik, arrisku betean dago hurrengo abenduaren 24ko desfilea. Izan ere, Olentzero karroza gordetzeko tokirik gabe geratu da. Kotxerasko eraikina eraitsi behar dutela eta, hortik ateratzeko agindua jaso zuen elkarteak, baina alternatiba egokirik eskaini gabe; proposatutako lekuak ez dira bideragarriak.

Horren aurrean, laguntza eskatu beharrean dago Ttakun Kultur Elkarte. Herriko norbanako eta eragileei zuzentzen gara, Olentzero eta Mari Domingiren garrantziaz jabetu daitezten; karroza nonbait baldintza duinetan gorde ahal izateko edozein laguntza baliagarri izango da. Denbora dezente darama auzi honek, eta orain arte udalean eginiko ahalegin guztiak antzuak izan dira.

Halere, zailtasunak zailtasun, ziur gaude herriaren laguntzarekin aurre egin ahal izango diogula. Horretan tinko eutsiko dugu, benetan sinesten baitugu Olentzero eta Mari Domingiren festa beharrezkoa dela Lasarte-Oriako kultur bizitzarako.



TXINTXARRI

Eskualdeko alkategaiak batera

EH Bilduko eskualdeko alkategaiak Lasarte-Orian elkartu dira aste honetan. Lasarte-Oria, Andoain, Hernani, Urnieta eta Astigarragako hautagaiak azaldu dutenez, elkarlana bultzatu eta biztanle guztientzako zerbitzuen alde egingo dute lan. "Pertsonak dira gure politiken ardatzak". Eskualdeak indartzeko "apustu argia" egin du EH Bilduk, hautagaiak azaldu dutenez. "Ez dugu sinesten hiriburuan ardatzen den Gipuzkoan. Eskualdeen alde egiten dugu, Gipuzkoa orekatu baten alde, azken finean. Berdintasuna bultzatzeko gakoak dira". Legealdi honetako EH Bilduko alkateen arteko elkarlana jarri dute adibide. "Mankomunitatea bultzatzeko, eta autobus zerbitzuetan PSEK eta EAJK egin nahi dituzten murrizketak salatuzko".



Eguraldi onak lagunduta, erromezale ugari igo ziren Azkorte hermitara igandean. TXINTXARRI

Astea ongi bukatzeko, erromeria Azkorten

Jendetza igo da Azkorte Santa Kruz ermitara, Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako erromeriaz gozatzena. Herri kirol erakustaldia, musika eta meza izan dira arretagune nagusiak. Indarrak berritzeko, salda, pintxo ugari eta edari freskoak aukeran

Iñigo Gonzalez Sarobe

Igande goizean Azkorte igo zirenetako askok gogo gutxi izango zituzten bezperan, ikusita zer nolako zaparradak bota zituen arratsaldean zehar. Ordu gutxitan asko aldatu zen eguraldia, ordea, eta eguzkia ere agertu zen Ttakun KEk antolatutako erromeriara. Lasarte-Oriako eta Urnietako udalek ere lagundu zuten. Jendetza bildu zen Santa Kruz ermita inguruetara, eguerdian batez ere.

Fededunek txiki utzi zuten ermita. 11:00etan hasi zen elizkizuna; Alboka abesbatzako kideek musikatu zuten. Ekinza hori bukatzean, hamaiketako egin zuten ermita inguruan elkartutakoek. Biyak Bat egoitzako kideek patata tortilla otartekoak eta edariak banatu zituzten. Hortik metro batzuetara jarri zuen postua Ttakunek. Jateko, salda eta pintxo ugari aukeran: txorizo, odolki, patata tortilla edo haragiarena. Edateko, berriz,

ura, garagardoa, freskagarriak eta sagardoa.

Ttakunen postu parean, oholta txiki bat zegoen. Gainera igota, Ttiriki Ttarraka musika eskolako hainbat kide. Eurak arduratu ziren goiza girotu eta mendizaleak dantzan jartzeaz. Hori baino lehen, herri kirolen erakustaldiaz gozatu zuten ikus-entzuleek. Erromeriako ekitaldi nagusia izan zen.

Harriak eta aizkorak

Harrijasotzaileak eta aizkolariak arduratu ziren ikuskizuna eskaintzeaz. Mateo Colomak eta Izeta III.ak altxa zituzten pisu eta forma desberdinetako harriak; Jesus Mari Mujikak eta Ugaitz Mugerzak moztu zituzten enborrak. Aurkezle lanak egin zituen Joseba Ostolaza harrijasotzaileak. Duela hilabete batzuk bera aritu zen lanean, Euskal Jaietan, Okerra jasozten.

Bukaerako proba mistoa izan zen erronka guztietan

ikusgarriena. Bikoteka aritu ziren kirolariak: Mujika eta Izeta, Coloma eta Mugerzaren aurka. Harrijasotzaileek ehun kiloko harri biribila jaso behar zuten, bosna altxaldiko bost txandatan. Aizkolariek, bosna kana erdiko moztu. Bukatzean, trontzan aritu ziren bikoteak, bost moztaldi nork lehenago egingo. Beteranoek -Mujikak eta Izetak- irabazi zuten, segundo gutxi batzuegatik.

Meza aspaldi bukatuta bazegoen ere, ermita ez zegoen guztiz hutsik. Sakristian elkartuta zegoen Azkorte batzordea, urtero bezala. Hamaiketako egiten dute han, eta anekdotak gogoratu. Urteror-urtero biltzen dira, XIX. mende erdialdetik. Lehenengo aldiz, 1845. urtean.

AZKORTEKO BATZORDEA URTERO-URTERO ELKARTZEN DA ERMITAN, XIX. MENDETIK



TXINTXARRI

Pladur eta porlan artean

Arkitekturako unibertsitate ikasleak adreilu, porlan, arrastel eta pladur artean ibili ziren joan den ostiralean EAGI eskolan. Arkitektogaiek eskuak zikindu dituzte. Porlana eta kutxatila bat nola egin edo pladurra nola jarri ikasi dute. EAGIko ikasle gazteek, berriz, langileburu lanak egin dituzte. Arkitekto ikasleei gauzak nola egin irakatsi eta zuzenketak egin dizkiete.

'Lesbokomikia', bi ertzetan

Teresa Castrok *Opil eta Muxilen binetak* komiki lesbikoak aurkeztu ditu Lasarte-Orian. Lesbianak protagonista ditzute marrazkiek, eta haien ingurukoak dira istorioak. LGBTBIQ+ kolektiboa bistartzeko helburua du komikiak. Latinoamerikako ilustratzaile lesbien lanak ere hartzen ditu; herrialde horietan kolektiboa zein egoeratan bizi diren jakinarazten du lanak.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Prentsa askatasunari buruz

Gara egunkariko langile Mikel Jauregi eta Joxe Javier Iñigo izan dira aste honetan Lasarte-Orian, egunkariaren aurka abiatu duten prozesua salatzen. Prentsa aniztasunak gizartea aberasteko egiten duen ekarpenaz ohartarazi zuten. Egin kasuagatik 3 milioi euro ordainaraziko dizkiete berripaperari, eta harpidendun bila dabilta zigor horri aurre egiteko.

Zaborren kudeaketa hobetzeko eskatuko dute

Lasarte-Oria birziklatze tasa baxuenak dituen eskualdeko udalerrria da. Gaikako bilketa sistema eraginkorrago baten alde manifestaziora deitu du Aire Garbiak, larunbat arratsalderako. Emaizak hobetuta erraustegia beharrezkoa ez dela frogatu nahi dute

Txintxarri

Zubietako erraustegia abiarazteko urratsak egiten ari badira ere, zaborrak hobe bilduta hura geldi daitekeela uste du Aire garbia plataformak. Aldarri horri helduta, manifestaziora deitu dute. *Bilketa eraginkorra bai, errausketarik ez!* lelopean, Okendotik irtengo da bihar 18:00etan. Halaber, baimena garaiz jasoz gero, gaur arratsaldean, karakterizazio bat egingo dute: Errefuxa edukiontzia bat hustu eta barrukoa aztertuko dute, hondakinak gaizki sailkatzen direla erakusteko.

"Aitzindari" beharko lukeen herria "azken putz" da. Lasarte-Orian gaikako bilketa %46koa da; herritar bakoitzak 228 kilo errefusa sortzen ditu. Udalak datua ontzat jo zuen oraintsu, baina plataformako kide Ricardo Ortegaren hitzetan, "irrigarria" da. Izan ere, eskualdeko datu okerrenak dira bertakoak. Are gehiago, Gipuzkoan "azken bagoian dago", Donostia, Hondarribia eta Mendaro bakarrik ditu atzean. Kontrako aldean, berriz, 32 herrik % 70etik gorako gaikako bilketa daukate, eta 53k 100 kilo errefusa baino gutxiago sortzen dute urtean biztanleko; atez ate bilduta edo



Ricardo Ortega, Aire Garbia plataformako kidea. TXINTXARRI


txipdun edukiontzia erabilia. Plataformak ohartarazi duenez, jokaera hori Gipuzkoa osora zabalduta, urteko 80.000 tona errefuxa eratuko lirakeke, agerian utzita urtean 200.000 tona tratatzeko errauste planta ez dela beharrezkoa.

Eredu berri baten alde

Xedea erraustegia "lehenbailehen ixtea" da, kudeaketa eredu berri baten alde eginda. Horretarako, borondate politikoa ezinbestekoa da, eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak baliatu nahi dituzte aktibaziorako. Borondate

politikoarekin batera, ixteak ekarriko lituzkeen kalte ordainek ere pisua dute. Ez dakite zenbateko kopurua den, baina "susmo txarra" dute, kontraturik erakutsi nahi izan ez dietelako orain arte.

Azpiegitura beharrezkoa ez dela erakusteko, ordea, ezinbestekoa da hondakindegira doanaren kopurua murriztea. Askatasunaren diskurtso "falsua" baztertu eta udalak kontrol neurriak ezarri behar dituela uste du Ortega. "Ezin da gehienak ondo aritzea eta gutxi batzuen arduragabekeriak dena izorratzea".



Goikoetxea, laborategian. NAROA GOIKOETXEA

Gibeleko minbiziaren aurka egiteko, atuna jateko deia

Naroa Goikoetxea herritarrak gibelen minbiziaren aurkako ikerketan lan egiten du, CIC bioGUNE

Txintxarri

Gibeleko minbizia gaitza hilgarria da, Mendebaldeko gizarteetan ohiko gaixotasua; 1,7 bilioi pertsonak sufritzen dute egun, sedentarismoa edo dieta desegoki baten erruz, besteak beste. Naroa Goikoetxea zientzialaria (Lasarte-Oria, 1994) ikerketa talde batean egiten du lan, gaitz horren inguruan gehiago jakiteko. Hain zuzen, Omega 3 gantz azido taldeak gibel minbizian izan dezakeen eragina ari da aztertzen. Eta ikerketarako dirua biltzeko, kanpaina bat abiatu dute Bermeoko Arrantzaleen Kofradiaren laguntzarekin. Omega 3 gantzetan aberatsa denez atuna, maiatzaren 9tik aurrera sare sozialetan arrain hori jaten argitaratzen duten irudi bakoitzeko euro bat

jarriko du kofradiak ikerketarako.

Arria jatea onurgarria da minbizia saihesteko, baita hura sendatzeko ere. Goikoetxea terapia konbinatu bat ari da ikertzen CIC bioGUNE etxean; alde batetik, Omega 3 kontsumitzea, eta, bestetik, tratamendu bat jarraitzea.

Atuna, bertako produktua

Ikerketa babestean gainera, bertako produktua ere babesteko baliagarria da kanpaina. Parte hartu nahi dutenek #bermeoatunaminbiziarenaurka traola erabili beharko dute Twitter, Facebook, Instagram edo Youtube sare sozialetan. Goikoetxeak azaldu duenez, aurretik ere antzekoak egin dituzte, marrubiarekin, esaterako. "Jendea mobilizatzea garrantzitsua da".

TXINTXARRIK KAZETARIA BEHAR DU

Lan jardunaldia ostiraletik igandera 8 ordukoa izango da, 24 ordu asteen gutzira

• Ezinbestekoa:

- Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea (gutxienez C1 maila izatea).
- Kazetaritza aritua izatea.

• Baloratuko da:

- Kazetaritza gradua izatea.
- Photoshop, InDesign eta Illustrator.
- Sare sozialen ezagutza izatea.
- Argazkilaritza gustokoa izatea.
- Ekimendun pertsona izatea.
- Lasarte-Oria ondo ezagutzea.

Curriculumak maiatzaren 13a bitarte jasoko dira:

txintxarri@txintxarri.eus

Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria

txintxarri



NOAOA
BIDAIAK

IRTEERA 2019ko IRAILEAN
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Nerea Eizagirre

Ostadar Ipar Martxako taldea Menorkan izan zen iaz, eta taldea ederki moldatu zenez, berriro ere esperientzia errepikatu nahi izan du. Aurten Gironan izan dira taldeko hemertzi kide Pazko Astean; apirilaren 22tik 28ra egin dute bidaia eta haien itzaropenak gainditu dituela jakitera eman dute Rosa Ormazabal eta Junkal Perez taldeko kideek.

"Bidaia mundiala izan da, oso konpletoa. Ipar martxa eta turismoa egin ditugu bertako gidekin, gastronomia ere dastatu dugu... Talde polita joan gara. Oso ondo moldatu gara eta umorea ere ez dugu falta," adierazi du Perezek.

Cristina Borrás Gironako ipar martxako kideen eskuetan jarri ziren bidaia antolatzeke. "Gironako irakaslea, Cristina, ezaguna dut ikastaro ezberdinetatik. Hark asko bidaiatzen du, Estatuan zein nazioartean ikastaroak ematen ditu eta ibilbide ugari egin ditu. Menorkarako bidaiarako gomendioak hark eman zizkigun, esate baterako. Gironara joatera gonbidatu gintuen duela bi urte. 'Gu joan eta zuek etorri' esan zuen, eta animatu gara," azaldu du Ormazabalek.

Bidaia antolatzean zalantzak izan zituztela onartu du Ormazabalek. "Iaz Menorkan gu bakarrik ibili ginen oso ondo eta oraingoan gidekin egingo genuen guztia".

Azkenean ideia paregabea eta oso aberasgarria izan zela onartu dute biek. "Cristina eta David Camara izan dira gure gidak. Haiek gabe ezinezkoa izango litzateke ibilbideak egitea, ez baitago bidea markatuta. Gainera, oso jatorrak, oso gertukoak, izan dira biak. Lagunen arteko gauza izan da".

"Davidek ipar martxa egiten du, baina bera turismo gida da. Historia oso gustuko du. Menorkan ez genuen horrelakorik, bertako historia edo ezagutu dezakezu, baina ez da berdina. Igandean, esate baterako, Gironan buelta bat eman genuen eta hark denetarik kontatu zigun, baina turkiarrak..." gehitu du Perezek.

"Gauza oso interesgarriak irakatsi dizkigu, irakasleek erakusteko modukoak. Biletetan estilo arkitektoniko guztien erakusleak daudela, 5ekoan



Ostadar Ipar martxako kideak Besalu zubian. Erdi Aroko herririk ezagutu zuten San Jordi egunean. OSTADAR IPAR MARTXA

"Kirola, turismoa eta harremanak uztartu ditugu"

Girona aldean izan dira Ostadar Ipar Martxa taldeko kideak Pazko Astean. Ez dute atsedetik izan. Bueltan ere izan dute egitekorik, Otsagabiko lagunak izan dira asteburu honetan Lasarte-Orian. Esate baterako, Azkorteke erromeriara igo ziren

klasikoa, 10ekoan erromanikoa, 20koan gotikoa... Mendian galduta bazaude ere, ermita bat aurkitzean nola orientatu erakutsi zigun. Sarrera mendebaldean eta aldarea ekialdean egoten ohi dira", gehitu du gainera Ormazabalek.

Ibilbideak eta buelta

Kirola, turismoa eta harremanak horiek izan dira bidaia honetako ardatzak.

Ipar martxari dagokionez, egunero 13 bat kilometro egin dituzte Gironako naturaz gozatuz.

Lehen egunean, Banyoles lakuaren inguruan ibilbidea egin zuten. Bigarrenegun, Penintsulako krater handienetik ibilbide "politaz" gozatu zuten. Ostegunegun, Vall de Sant Daniel eta Girona inguruak ezagutu zituzten. "Hemengo Santa Barbara antzeko mendixka bat da, altuagoa," esan du Perezek. Azken egunean, kostan izan ziren Palamos aldean. Hondartza, senadi eta basoetan zehar egin zuten buelta. "Bertan La Barraca d'en Dali etxetxo aurkitu genuen", adierazi dute.

Azken egun horretan gainera, ikastaro berezi bat jaso zuten. "Ipar martxan eskola ugari daude. Gurea alfa metodoa da. Honetan, hiru maila daude, gu lehenengoan gaude eta Cristina maila gorenean dago. Cristinak Marko Kantaneva Finlandiako eskolako originalaren sortzailea oso ezaguna du eta alfa eta original, biak fusionatzen ditu. Han ginela ikastaro azkar bat emateko eskatu genion eta berak baiezkota eman zigun. Itsas ertzean egin genuen eta oso aberasgarria izan zen guztientzat. Gauza berriak

erakusteko oso ongi etorri zaigu," azaldu du Ormazabalek.

Eguraldiarekin ere zortea izan dutela aipatu dute. "Lehen eguna kenduta, eguraldi ona izan dugu. Asko baldintzatzen du horrek, ezin ditugu hainbeste kilometroko ibilaldiak egin eguraldi txarra eginez gero. Eta kostaldera joan ginenean zerua garbi zegoen urdin-urdina, oso polita izan zen".

Makilak alde batera utzi dituzte tarteka turismoa egiteko. Besalu eta Girona hiriburua ezagutu dituzte eta bertako gastronomia ere dastatu dute. "Banyolesen lakuan bertan zegoen jatetxean bazkaldu genuen. Gironako egunean ere *El cul del mon* jatetxean jan genuen. Batek esaten zuen, iaz makarroiak tuperrean eta aurten ongi jango dugu".

San Jordi eguna ere bertan egin zuten. "Lan egun normala da, baina gauza bereziak egiten dituzte. Besalun ginela ikastolako haurrak kalera atera zituzten. Gironan kalean postuak zeuden liburu eta arrosak saltzen. Hauteskundeak zirela eta, politiko guztiak ere bertan ikusi genituen. Jende asko zegoen eta guztiak zeukaten arrosa eta liburuarekin. Giro polita zegoen".

Honez gain, harremanak egiteko aukera ez dute galdu. Gironako ibilbidea bertako talde batekin egin zuten. "Cristinak hainbat talde ditu eta horietako jendea etorri zen gurekin. Hemen bezala A eta B ibilbideak izan ziren, batzuk mendira eta besteak herrian zehar".

"Bertako taldeko kideak ere oso jatorrak ziren. Harreman polita egin dugu guztiarekin eta urrian etorriko dira. Rosa guztia prestatzen ari da," azpimarratu du Perezek.

"Urria bukaeran Gironan zubia dute. Krosean parte hartuko dute eta Albaolara ere bisita prestatzen ari gara. Asteartera arte datoz," azaldu du Ormazabalek.

Otsagabikoen bisita

Ez da hori Ostadar Ipar martxakoek jasoko duten lehen bisita izango. Asteburu honetan Otsagabiko lagunak etorri baitira Lasarte-Oriara. "Gu hara martxoan joan ginen eta orain haiek ordekoa egin dute".

Orio-Zarautz-Getaria ibilbidea egin zuten larunbatean. Getarian bazkaldu eta buelta Zarautzera.

Gero haiekin afaldu zuten sagardotegi batean. Igandean, Azkorterara joan ziren erromeriara. "Batzuk Buruntzara igotzera animatu ziren. Norbaitek eguraldi onarekin Getaria eta kosta ikusten dela esan zien eta hamasei igo ziren. Askok gustatu zitzaizkien". Xirimiri elkartean bazkari batekin amaitu zuten asteburua.

"Oso ondo pasa genuen eta plana egin dugu. Abuztuan datoz berriro. Gu ere joango gara hara Iratiko basoan ibiltzera. Harremana eginga dago, bai Otsagabirekin, bai Gironarekin," adierazi du Ormazabalek.

"Gure taldeko kide batek esaten zuen, 'Jo! Ipar martxak eman diguna: kirola eta harremanak'. Taldean giro ederra dugu eta Lasarte-Oriako jende ezberdina gaude. Eta gero aparte, kanpoko jendea ezagutzen dugu".

Taldean gehienak emakumeak dira eta jende berria erakarri nahian bide berri batean lanean hasiko direla ere azaldu du, "mutil berri bat sartuko da taldean eta horri esker, ipar martxa ere mendiak egiteko erabil daitekeela erakutsi nahi dugu. Guk senderismoa egiten dugu, adinagatik eta gustuko dugulako, baina mendian ere ibili daiteke".

"Agian krosean lehia ikusten dutenean animatzen dira. Bestela ere, Orona aldera hurbildu eta Hernanikoak ikustea dute," gehitu du Perezek.

"Jendeak uste du ipar martxa emakumeentzako kirola dela, helduentzako kirola dela, belaunak gaizki dituztenentzat dela... Ipar martxako sustatzaileak bi gizon dira, Marko Kantaneva



Gironako kostaldean ere ibili ziren taldeko kideak Palamos aldean. Hondartza eta baso artean, La Barraca d'en Dali etxetxoak aurkitu zuten. OSTADAR IPAR MARTXA



eta Andreas Wilhelm," azaldu du Ormazabalek.

Horregatik taldearekin bat egin edo lehen pausoak eman nahi dituzten herritarrei gonbidapena egiten diete asteazkeneko egiten dituzten teknifikazio saioetara hurbiltzeko.

Bestalde, maiatzaren ikasturteko azken irteera egingo dutela gogora ekarri dute. Hilabeteko azken larunbatean izan ohi da hitzordua, baina Ostadar SKTko denboraldi amaierako jaia dela eta, maiatzaren 26an igandean egingo dute. "Urtero amaitzen dugu Lasarte-Oriako mugak ibilbidearekin. Jendeak gustuko du eta polita iruditzen zaie bidea. Irailean hasiko dira berriro, lehengoan gainera, egun osoko irteera antolatzen dugu. Ipar martxa eta turismoa uztartzen ditugu. Iaz Elorriora joan ginen," azaldu du Ormazabalek.

Ipar martxako taldeak ez du atsedetik hartzen. Ekintza bereziak, irteerak... beti dute zerbait buruan. Hurrengo ikasturterako bidaia ere hasi dira prestatzen. "Maltara joatea da asmoa."



Ostadar Ipar martxako taldea Gironako taldeko kideekin. OSTADAR IPAR MARTXA

UDABERRIKO BERTSO SAIOA

dantza antzerki musika
literatura artea umorea



BERTSOLARIAK
ERRIMAN
ARTISTEKIN

PARTE HARTZAILEAK

Idoia Garzes eta Bixente Beltran |
Asier eta Kiko (Semblante Andaluz) |
KUKUKA antzerki eta dantza eskola | Aitor Atxega |
Ione Zabala | Bea Egizabal | Intza Alkain | Nikola Iraola |

GAI JARTZAILEA

Maddi Labaka



BERTSOLARIAK

Maialen Lujanbio | Ane Labaka | Andoni Egaña

Maiatzak 18, larunbata • 22:30
Manuel Lekuona Kultur Etxea • Lasarte-Oria
SARRERAK | 5,50 € | 10 sarrerako bonoa 45€




PLAZAN BAZAN



NON arraio

Bila itzazu irudi nagusian honoko elementu hauek:



5 untxi



5 paperezko itsasontzi

10 arrain



3 igel



Irudi engainariak

Hamabi zati hauetatik bost irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako zazpiak engainariak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Hamabost

Alde handia dago irudi nagusiko zuhaitzaren eta goiko honen artean. Guztira 15 desberdintasun dituzte biek. Ikusten al dituzue?

DOMINOAN

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.



Itzala

Zein da itzal zuzena?



Bihar ekingo dio Lauko Finalari Ostadar SKTk

Gipuzkoako lau talde onenetako bat da Ostadar SKT, beste urte batez. Majo sufritu du final laurdenetan, baina Añorgari 51-45 irabazita finalerdietan sartu da. Antigua Luberrirekin neurtuko ditu indarrak bihar, Maialen Chourraut kiroldegian, 18:00etan



Ostadar SKTko taldekideak, pasa den larunbateko garaipena ospatzen. Argazkia errepikatu nahi dute bihar. TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Maialen Chourraut kiroldegiko desfibriladoreak ez zuen lanik egin behar izan larunbatean, zorionez. Jokalariengatik bainoago, zaleengatik. Emozioz

betea izan zen partida, hasi eta buka: hirukoak, pase zoragarriak, baloi galtzeak, txapelak, intentsitatea, defentsa itogarriak... Final laurdenak izan ziren pasa den larunbatekoak. Pentsa

nolako izan daitekeen final handia. Bide onean da Ostadar SKT, Añorgari 51-45 irabazita. Finalerdia du hurrengo erronka. Antigua Luberriren aurka joan eta etorriko partidak jokatu

beharko dituzte urdin-beltzek. Partida zailak izango dira Ander Otaegik entrenatzen duen taldearentzat. Liga erregularrean bi aldiz jokatu dute elkarren aurka; donostiarrek irabazi dituzte bi norgehiagokak. Joanekeo partida, bihar lehiatuko dute, Maialen Chourraut kiroldegian 18:00etatik aurrera.

Komeriak hasieran

Gakoetako bat izango da hasiera. Joan den asteburuan, esaterako, hotz ekin zion neurketari Ostadarrek. Erasoan kamuts, eta baloiarekin urduri. Dena den, hiru erasotan zazpi puntu sartu eta 10-5 aurreratu ziren. Bigarren laurdenean, ordea, arratsaldeko minutu txarrenak jokatu zituzten urdin-beltzek.

Komeriak erasoan: berdin zuen nola saiatu, emaitza beti zelako berbera. Baloiak saskiarenean ertzetako batean jo, eta errebotea Añorgarentzat. Komeriak defentsan: baloi dezente galdu, eta kontraerasoak ezin behar bezala eten. Hiruko marran ez zituzten ohi bezain estu hartu aurkariak, eta pairatu zituzten ondorioak. Kanpoko taldea puntuak pilatzen joan zen apurka-apurka, inurriek negurako jakiak nola. Atsedenaldirian, 17-24. Beltza zen panorama, arratsalde horretako zerua baino beltzagoa. Urruti zeuden finalerdiak.

Nabarmentzekoa kiroldegian elkartu ziren zaleen jarduna eta jarrera. Talde batekoek zein besteok eztarriak urratu arte

animatu zuten, eskuak gorritu arte txalo egin, baina kiroltasunez beti. Ez luke azpimarratu beharreko gauza izan behar, baina, zoritxarrez, hala da.

Suspertzea, garaiz

Garaiz jo zuen iratzargailuak, etzekoen zorionerako. Lehen zatiko urduritasun eta tentsioak aldagelan utzi, eta dakien bezala jokatu zuen Ostadar SKTk, lozorrotik esnatuta. Talde guztia aritu zen ederki, baina bereziki nabarmentzekoa izan zen Leire Belartietara antolatzailearen jarduna. Hemeretzi puntu sartu zituzten urdin-beltzek hirugarren laurdenean. Horietaatik hamar, jokalaria gazteak. Defentsan ere hortzak estutu zituzten, eta, 19-11ko partziala sartuta, buelta eman zioten markagailuari: 36-35.

Laugarren laurdenean zazpi puntuko aldea izatera iritsi ziren, baina sufritu egin behar izan zuten azken minutuetan. Partidako momentu beroenetan, baina, bikain erantzun zuen taldeak, eta 51-45 irabazi. Ikustekoak Olatz Bardajiren 2+1 jokaldia eta beraren, Yaiza Navaroren eta Haizea del Olmoren txapelak. Talde lana.

GAKOA, HIRUGARREN LAURDENA: 19-11KO PARTZIALA SARTUTA, BUELTA EMAN ZIOTEN MARKAGAILUARI

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ESPAINIAKO KOPA
Atl. de Madrid - Real Sociedad Larunbata. 20:30. Nuevo Los Carmenes, Granadan.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Euskalduna Larunbata. 12:45. Michelin Kirol gunean.
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Rezola, Donostian.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Eibar SAD - Ostadar SKT Igandea. 12:30. Unbe, Eibarren.
INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA
Ostadar SKT - Ordizia KE Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
INFANTIL TXIKI PARTE HARTZEA
Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa KE Larunbata. 09:45. Michelin Kirol gunean.
INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Beti Gaste KJKE Larunbata. 15:00. Michelin Kirol gunean.

INFANTILEN F-8, KOPA
Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa KE Larunbata. 16:30. Michelin Kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Bar Buenetxea - Viña del Mar Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.
Avenida taberna - Academia London Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.
Izen gabe - Trumoi taberna Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Insausti taberna - Patricio Cocktail Bar Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
3. MAILA NAZIONALA
Goierri KE - Antiguoko KE Igandea. 18:00. Aldiri kiroldegia, Urretxun.
GIPUZKOAKO SENIORRA
Idiazabal - Garoa taberna Ostirala. 20:30. Zelaa kiroldegia, Idiazabalen.
GIPUZKOAKO JUBENILAK
Bar Lasarte - Arantzazuko Ama Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegia.

GIPUZKOAKO KADETEAK, UDABERRIKO TXAPELKETA FINALA
Zarautz KE - Balerdi Harategiak Larunbata. 12:50. Gaska kiroldegia, Donostian.
SASKIBALOA
SENIOR LEHENENGO MAILA, FINALERDIA
Ostadar SKT - Antigua-Luberrri KE A Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kiroldegia.
PILOTA
GIPUZKOAKO LAU TERDI TXAPELKETA
Artexa - Altuna Ostirala. 20:10. Michelin Kirol gunean.
INFANTILAK
Intxurre 2 - Intza 1 Ostirala. 18:30. Elorri, Alegin. 3. partida.
Intxurre 1 - Intza 2 Ostirala. 18:30. Elorri, Alegin. 4. partida.
LASTERKETA
ORIOKO MENDI LASTERKETA
Hainbat herritarrek Orioko Mendi lasterketan parte hartuko dute. Larunbata. 16:00. Orion.

MINBIZIAREN AURKAKO LASTERKETA
Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik Minbiziaren aukako lasterketetan parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Donostian.
IRATI TRAIL
Iratiko basoan barrena egiten den 23 kilometroko Irati trail lasterketetan lehiatuko dira hainbat herritar. Igandea. 10:00. Iratiko basoa, Nafarroan.
IGERIKETA
ALEBINEN TEKNIFIKAZIOA
Buruntzaldea IKT taldeko Nerea Irazu alebin mailako Gipuzkoako Federazioko teknifikazio saioan izango da. Larunbata eta igandea. Aritzabalde kiroldegia, Zarautzen.
TXIRRINDULARITZA
BIDASOAKO ITZULIA
Caja Rural taldeko Iñigo Altuna XLVII. Bidasoako itzulian ari da lehian.

Ostirala eta larunbata. Hendaia-Urdax/Irun-Irun.

TRIATLOIA
HONDARRIBIAKO TRIATLOIA
Lasarte-Oriako hainbat triatloilari XI Hondarribiako Sprint Triatloian proban lehiatuko dira. 750 metro igerian, 20 kilometro bizikletan eta 5 kilometro lasterketan egin beharko dituzte. Larunbata. 17:00. Hondarribian.
GIMNASTIKA
ESKOLARTEKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Escolarteko Gipuzkoako txapelketan izango dira Lasarte-Oriako gimnastak taldeka zein bakarka. Alebin B mailan, Landaberriko taldea eta Maitane Sarmiento; Infantil B mailan, Alexia Barquin eta Aitana Molano eta Alebin A mailan, Eneritz Diaz de Gereñu lehiatuko dira. Larunbata. Goiz eta arratsaldea. Usabal kiroldegia, Tolosan.

Zudairek, beste errekor bat

Nahia Zudairek Espainiako errekor berri bat ezarri eta beste gutxieneko bat egin du Munduko txapelketarako. Joan den astean Valladoliden egindako AXA Etorkizuneko Paralinpiarren III. elkarretaratzean 100 tximeleta proba 1:22,89ko denboran osatu zuen. Bestalde, Buruntzaldea IKTKo alebinek eta benjaminek euren txapelketak amaitu dituzte asteburuan Hernanin.



TXINTXARRI

Eguzki Areto Futboleko taldeak une erabakigarrian daude

Balerdi Harategiak Kopako finala jokatu du larunbatean, eta ISU Leihoak kategoriaz igotzeko lehiatuko da asteotan

Txintxarri

Denboraldian zehar egindako lan gogorraren fruituak jasotzen ari dira Eguzki Areto Futbola klubeko taldeak. Gipuzkoako 2. mailako ISU Leihoak kategoriaz igotzeko lehiatuko da datozen asteetan, azken fasera sailkatu baita, Antiguoko B liderrari 4-1 irabazita. Lehen postutik puntu bakarrera bukatu du liga erregularra.

Kantxan eta markagailuan nabaritu zen etxeko taldearen grina; atsedenaldirako 4-0 ari ziren. Donostiarrek oso goian presionatu zuten ISU, eta horri aurre egiterakoan min handia egin zuten, eta lau gol sartu. Bigarren zatian abantaila ongi kudeatu zuten, Antiguokok hiru minuturen faltan sartu zuen gola, penaltiz.

Kopa jokoan

Kadete kategoriako Eguzki Balerdi Harategiak Kopa irabaziz

bukatu nahi du denboraldia. Gorka Redondoren jokalariek erosotasunez irabazi zuten asteburuan: 2-7 Arizmendiren aurka. Emaizta horrekin, ligaxka bigarren postuan bukatu dute eta final handira sartu dira. Bihar jokatu dute finala, Donostiako Gaska kiroldegian, 12:50ean. Zarautz izango dute aurrez aurre.

Beste emaitza batzuk

Gipuzkoako 1go mailako Eguzki Aldaz Hartz Klinikak denboraldi amaiera bikaina egin du, eta Lauburu Berazubiri 2-3 irabaziz bukatu du liga. Jardunaldi ugari azkeneko postuetan pasa eta gero, emaitza on asko kateatu ditu azken norgehiagoketan, zortzigarren postura iristeraino.

Eguzki Garoa Tabernak sasoi puntu paregabean segitzen du, eta ligaxkako lehen postuan da, lau partidatetik hiru irabazita. Azkena, Teep Samaniego Orixe Tolosaldearen aurka, 9-1.

Atletismo atala du Ostadarrek

Ostadar SKT kirol taldeak atletismo sekzioa eratu berri du. Amaia Andresek eta Oscar Goikoetxeak zuzenduko dute. Andres atleta ohia da, Espainiako selekzioarkin olimpikoa, eta eskarmentu handiko entrenatzailea. Atalak atletismo eskola, federatuak eta atletismo herrikoa jorratuko ditu.



TXINTXARRI

Murgiondo eta Buiza, Huelvan

Kadete mailako klub arteko Espainiako Saskibaloitxapelketak jokatu dituzte hilaren 19tik 25era bitartean. Gizonezkoena Huelvan aurrera eramango dute, eta bertan izango dira Easo taldeko Eñaut Buiza eta Peru Murgiondo herritarak. Klub berean jokatu dute Judith eta Garazi Navarro ahizpak, berriz, data berean Valentzian lehiatuko dira.



TXINTXARRI

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana talde-lana da”

Ane Lopez (Lasarte-Oria, 23 urte) Haur Hezkuntzako graduako 4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Ba al duzu hobby edo zale-tasunik?

Orain arteko ikasketak Lasarte-Orian egin izan ditut, goi mailako zikloa izan ezik; hori Tolosan egin nuen. HH, LH eta DBH Landaberri ikastolan egin nituen. Batxilergoa IES Oriarte BHI institutuan eta, bukatzeko, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa Tolosako Inmaculada Ikastolan egin nuen. Bestalde, aipatzekoa da nire zale-tasun handiena dantza egitea dela. Lasarteko Amaia Gonzalez Caballero Akademian eskolak hartzen ditut eta, asteburu batzuetan, nire lagunekin dantza egitera joaten naiz, ondo pasatzera eta disfrutatzera.

Zergatik aukeratu zenuen Haur Hezkuntza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Alde batetik, gradu hau aukeratu nuen goi mailako gradu hau egin eta gero konturatu nintzelako lan egiteko gradua beharrezkoa egiten zitzaidala. Eta bestetik, Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen ospe handia duelako. Gainera, nire euskara maila garatzeko ere aukera izango nuela pentsatu nuen.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia polita dela esango nuke. Gainera, etxetik kanpo bizitzen egonda, pertsonalki ere asko ikasi dudala esan dezaket. Bestalde, hirugarren mailako praktikak kanpoan egin nituen, eta horrek eragin positiboa izan du niregan.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Lehenik eta behin garrantzitsua da aipatzea kooperatiba bat dela. Bestalde, gure metodologia beste unibertsitateetan ez bezala, talde lanetan oinarritzen da. Hau da, ez dugu ia azterketarik egiten ikasketen prozesuari ematen baitiote garrantzia.

Bestetik, bigarren kurtsuan dauden ikasleak ezagutzen ditut eta badakit ez dutela gure metodologia berdinean ikasten. Beraz, nabaria da aurrerapauso txikiak egiten ari direla.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana talde-lana da. Baina, honek ere bere alde negatiboak dituela esan be-



harra dut. Hau horrela, aipatzekoa da oso argi dudala azterketak egin beharrean ikasketen prozesua talde lanean garatzea askoz aberasgarriagoa dela. Azken finean, azterketa bat duzunean, azterketa sartzen dena ikasi, azterketa egunean hori “bota” eta kitto. Hori da egiten duguna. Gainera, azterketatik ateratakoan ez gara ia inoiz gogoratzen idatzitakoak iruz. Bestalde, talde lanetan hori ez da gertatzen, eta lau urte hauetan hori horrela dela ziurtatu dut. Alegia, lan baterako behar den informazioa kontrastatu ondoren, zure iritziak, zirriborroak, laburpenak eta abar egin eta besteekin konpartitzen dituzu.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Nire asmoa ikasten jarraitzea da, Lehen Hezkuntza egiteko asmotan nago. Gainera, Mondragon Unibertsitatean egiteko asmoa dut. Honetaz aparte, nire profesioan sakontzeko moduko ikastaroak egingo ditut eta horrela, nire ibilbide profesionala osatu eta aberastuko dut.



Iraia Iparragirre, atzekaldean, Atletico de Madrilen aurkako partidan, ligan, joan den astean. REAL SOCIEDAD

Iraia Iparragirre, Realean historia idazteko prest

Titulu bat irabazteko aukera dauka talde zuri-urdirak. Espainiako kopako finala jokatu du bihar, larunbatean, Atletico Madrilen aurka, Granadan. Favoritoak dira madrildarrak; liga irabazi berri dute. Ezustekoa ematen saiatuko dira gipuzkoarrak

Txintxarri

Partida historikoa jokatu du Realak bihar, larunbatean: Espainiako kopako finala, Granadan. Eta une historiko horren protagonista izango da lasarteoriatar bat: Iraia Iparragirre. Atletico Madrilen aurka jokatu dute finala historikoa, 20:30ean. Espainiako telebistan jarraitu ahal izango

da norgehiagoka. Halere, Donostiako Trinitate plazan pantaila erraldoia jarriko dute, zaleek zuzenean jarraitu dezaten.

Irganari erreparatu besterik ez dago partidaren garrantziaz jabetzeko. Realak azken finala 1988an jokatu zuen, orain dela 31 urte. Orduko hartan finala galdu zuten, Bartzelonaren aurka.

Urtebete lehenago lortu zuen Realak bere azken titulua, kontutan hartzen ez bada behintzat 2009-2010 denboraldiko Bigarren Mailako txapelketa. Guztira bost trofeok osatzen dute talde zuri-urdiraren palmaresa: bi kopa (1908-1909 eta 1986-1987), bi liga (1980-1981, 1982-1983), eta superkopa bat (1982).

Era berean, aldarrikapen aldetik ere badu asko final horrek. Gero eta indar handiago hartzen ari da emakumeen futbola azken aldian, Anoeta eta beste zelai handiak bete baitituzte partida garrantzitsuenetan. Halere, oraindik bide luzea dute egiteko parekidetasunaren alorrean, batez ere lan baldintzen arloan. Kontratu milioidunak dituzte mutilek; neska askok, berriz, beste lantxoekin osatu behar dituzte futboleko diru sarrerak.

Atletico, favoritoa

Ligako etxekolanak ongi bukatuta ekingo diote donostiarrek finalari. Zazpigarren amaitu dute, oro har, txapelketa ona jokatu. Bikain hasi ziren, lehen partida guztiak irabazten, bolada txar bat izan zuten ondoren, baina dinamika aldatzea lortu dute.

Edonola ere, Madrilgo taldea da favorito argia. Ligako txapelduna da; hirugarren aldiz jarraian irabazi du. Txapeldunen Ligan final hamaseirenetan kanporatu zuten, baina Espainiako kopan hutsik ez du egin. Azken bi urteetan azpitxapeldun geratu ondoren, indar guztiak jarriko ditu aurten Espainiako bi tituluak eskuratzeko.

Hain justu, ligako azken jardunaldian bi taldeek elkarren aurka jokatu zuten. 1-3 galdu zuten Zubietan zuri-urdirak, baina ondorio gehiegi ere ezin dira atera partida horretatik; madrildarrek liga zuten jokoan; donostiarrek, ordea, ezer ez.

Gonzalo Arkonada bera gustura agertu da jokalariek azken partida horretan erakutsi zuten lehiakortasunarekin, eta

oroitarazi du partida bakarrera "edozer gauza" gertatu daitekeela.

Iparragirre berak partida osoa jokatu zuen, nahiz eta urte gorabeheratsua izaten ari den. Entrenatzaileak "aldaketa txiki batzuk" iragarri ditu finalari begira.

2017-2018 denboraldian, Juanjo Arregi entrenatzaile zela, oso gutxi jokatu zuen Lasarte-Oriako atzelariak. Taldeak gaizki hasi zuen liga, emaitza txar asko kateatuta. Entrenatzaile aldaketarekin, ordea, Iparragirreren egoera aldatu zen: Ezinbestekoa bihurtu zen Gonzalo Arkonadarentzat atzeko lerroan.

Denboraldi honetan, lehen partidetan hamaikakoan finkoetako bat izan da Iparragirre, baina denboraldi erditik aurrera aulkian hasi ditu partida gehienak. Lau denboraldi daramatza Realean, eta aurreneko beste urte batez luzatu du kontratua, 2020. urtera arte.

Lasarteoriatarak, Granadan

Nolanahi ere, babesa ez zaio faltako Iparragirreri, Realeko zale asko joan baitira Granadara partida ikustera, tartean lasarteoriatar ugari.

Haraino joan ezin duenak ere izango du festa giroan murgiltzeko aukera. Izan ere, Donostiako Trinitate plazan hainbat ekitaldi antolatu dituzte larunbat arratsaldean, gero partida zuzenean jarraitzeko pantaila handi baten bidez.

DENBORALDIKO AZKEN ZATIAN EZ DU ASKO JOKATU LASARTE-ORIAKO ATZELARIAK

HARATZAGO

IBILDIA LEKEITIO 2019

Gurekin autobusez,
Lasarte-Oriatik
HARATZAGO Lekeitiora!


Eguna **Maiatzak 19**
Izena emateko azken eguna **maiatzaren 16a**
Prezioa Bazkideak **10€**
Gainerakoak **12€**

Irteteko **Tajamarreko biribilgunean 09:15ean**
Itzultzeko **Lekeition 19:00etan**
Geltoki 4, behea - LASARTE-ORIA
943 37 14 48 - kultura@ttakun.eus

**DO
BE
RA**
EUSKARA
ELKARTEA

**TTA
KUN**
Kultur Elkartea

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Aiora
Zorionak guapa!!! Azkenean iritsi da zure urtebetetzea, txokolatetzko 12 muxu, famili guztiaren partetik.




Nahia
Zorionak Nahia! Handitzen ari zara. 3 muxu potolo.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 10




Larunbata, 11




Igandea, 12




Astelehena, 13




Asteartea, 14



Asteazkena, 15



Osteguna, 16



GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 10 ORUE
Larunbata, 11 ACHA-ORBEA
Igandea, 12 ACHA-ORBEA
Astelehena, 13 DE MIGUEL
Asteartea, 14 LASA
Asteazkena, 15 GIL
Osteguna, 16 ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

4			3	8			7	
9	3	2			7	8		4
7							9	
5		7			2	4		
	1	4	9			5	3	
3				4		7		1
	4	5		6				
6			8		5	2		3
		3			4	1	5	6

JAIOTAKOAK

Nahia Herrero Baztan. Apirilaren 25ean.

HILDAKOAK

Alejandro Garcia Greño. Maiatzaren 6an.

Pilar Zuloaga Arrillaga. Maiatzaren 3an.

OHARRAK

San Pedro jaietako pilota txapelketa

San Pedro Jaietako XXXVI. Eskupilota txapelketako izena ematea maiatzaren 14an, asteartea amaitzen da. Interesa duten gaztetxoek 17:30etik 20:00etara eman dezakete izena Michelin kirol guneko pilotalekuan.

2005 eta 2010. urteen artean jaiotako herriko neska eta mutilek parte har dezakete. Partidak larunbat eta igande goizetan izango dira Loidi-Barren pilotalekuan.

Antolatzaileek ohartarazi dute ez direla txapelketako partidetan gerta litezkeen lesioen edo istripuen arduradun egingo.

Biyak Bat elkarteko irteera

Hilabete honetan, Biyak Bat elkarteko kideek Haro herrira egingo dute bisita. Bakearen plaza, udaletxea, hainbat jauregi eta Vegako Ama Birjina basilika ezagutuko dituzte. Cuzcurreta del Rio Tiron herriar bazkalduko dute. Izena ematea maiatzaren 14an, asteartea irekiko da. Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek, 45 euro. Inskripzioa Biyak Bat elkarteko bulegoan egin behar da, 10:30etik 12:00etara.

Bidezko Merkataritza eguna

Maiatzaren 9an Bidezko Merkataritzaren Eguna ospatu da. Hori dela eta, Arantzazuko elizaren Bidezko Merkataritzako taldeak herrian ospatu nahi du larunbatean, hilaren 11n, Okendo plazan 11:00etatik 14:00etara.

Photocall bat, txapak egiteko tailerra eta haurrentzako jolasak egongo dira. Bidezko Merkataritzako produktuen postuan jakiak dastatzeko aukera ere izango da.

Bidaia Britainia eta Normandiara

Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatu du Britainia eta Normandiara, uztailak 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garajeko marra bat alokatzen dut, hilabetean 60 eurotan, Pablo Mutozabal 2. zenbakian. Telefonoa: 688 655 218.

LANA

ESKARIA
Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako taberna baterako. Interesatuak deitu: 607110365.

ESKAINITZA

Laguntza behar duzu? Lasarte-Oriako pertsona eskaintzen da etxea garbitzeko, janariak prestatzeko, plantxa egiteko... Esperientziaduna. 659 429 221.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. 663 488 438.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagire, Inigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzailak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 10

USURBIL Urtemuga festa

Santueneako Gure Elkartea zaharren egoitzak bere 3. urtemuga ospatuko du. Pintxo-pote berezia eta *Elektrotrapo* taldearen emanaldia izango dira. Gure Elkartea, 19:00etan.

ANDOAIN Ikuskizuna

Noche Sabinera Pancho Varona eta Antonio Garcia de Diego musikariak eta Mara Barros abeslaria Joaquin Sabinaren laguntzaileek 2006an sortutako ikuskizuna da. Sabinaren kantak eskainiko dituzte. Publikoak ere oholtzara igotzeko aukera izango du, aukeraturako kantuak abestera. Sarrera, 20 euro.

Bastero Kulturgunea, 20:00etan.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Arantzazuko elizaren Bidezko Merkataritzako taldeak Bidezko Merkataritzaren Eguna ospatuko du hainbat ekintza burutuz. Bidezko Merkataritzako produktuen postua jartzeaz gain, photocall bat, txapak egiteko tailerra eta haurrentzako jolasak ere egingo dituzte. Okendo plaza, 11:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Manifestazioa

Aire Garbia herri plataformak deituta *Bilketa eraginkorra bai, errausketarik ez!* manifestazioa egingo dute. Okendo plaza, 18:00etan.

MUTRIKU Bertsolaritza

Ane Labakak Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean parte hartuko du. Sarrerak Bertsozale Elkarteko kideek eta 6-16 urte arteko gazteek, 5 euro; gainerakoek, berriz, 7 euro. 16:00etan jarriko dira salgai. Zabiell Kultur Etxea, 17:00etan.

BERASTEGI Bertsolaritza

Lierni Rekondok Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean parte hartuko du. Sarrerak Bertsozale Elkarteko kideek eta 6-16 urte arteko gazteek, 5 euro; gainerakoek, berriz, 7 euro. 16:00etan jarriko dira salgai. Udaletxea, 17:00etan.

ANDOAIN Kale-ikuskizuna

Uterior... el viaje kalejira ikusgarriak,



LASARTE-ORIA 'Musua' ikuskizuna. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek *Musua* ikuskizuna eskainiko dute. Urtaroak eta horietan ospatzen diren jaiak oinarri hartuta emanaldi berria prestatu dute. Santa Ageda, Inauteriak, San Joanak, Gabonak... ohitura zaharrak mantendu behar dira, baina berriak ere sortzen doaz. Haurren gozamenerako, pailazoek abentura berria biziko dute ikuskizun honetan. Sarrerak agortuta daude. Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata, 17:00etan.

Andoingo kaleak bisitatuko ditu. Juanita Alkain plazatik hasi eta Zumea plazan amaituko da. Juanita Alkain plaza, 18:30ean.

USURBIL Antzerkia

Txalo produkzioak *Zoaz Pake Santuan* antzezlan eskainiko du. Sarrera aurrez aldetik, Lizardin 8 euro; egun berean, 10 euro. Sutegiko auditorioa, 20:00etan.

IGANDEA 12

ALTZO Bertsolaritza

Zigor Iriondok Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean parte hartuko du. Sarrerak Bertsozale Elkarteko kideek eta 6-16 urte arteko gazteek, 5 euro; gainerakoek, berriz, 7 euro. 16:00etan jarriko dira salgai. Batzarremuño Kulturgunea, 17:00etan.

USURBIL Ospakizuna

San Isidro, Baserritarren eguna ospatuko dute. Hamaitetako herrikoia, Ane Labaka eta Sebaxtian Lizasoren bertso saioa, bertso-bazkaria eta giza proba egingo dira. Frontoia, egun osoa

ASTELEHENA 13

LASARTE-ORIA Erakusketa

Karmelo Oñate ilustratzailearen

marraskien erakusketa izango da. Mendiko kirol jardueren marraskiak dira. Eskoriatzarra mendian praktikatzen dituen disziplina ezberdinetan bizitako uneak irudikatzen saiatzen da. Erakusketa maiatzaren 17ra, ostirala, arte izango da ikusgai.

Antonio Mercero aretoa, 19:00etatik 21:00etara.

ASTEAZKENA 15

LASARTE-ORIA Ikastaroa

Wikimedia Commons erabiltzen ikasteko tailerraren bigarren saioa egingo dute. Korrikako argazkiak atera eta lau haizetara zabaldu nahi, izena, deskribapena, kategoria eta guzti? Lasarte-Oriako bazterren irudi politikak dituzu eta horiek munduratu nahi? Ikastaroan erakutsi dute nola egin. Ordenagailu eramangarria behar da. Manuel Lekuona kultur etxea, 18:30etik 20:00ak arte.

OSTEGUNA 16

LASARTE-ORIA Udaltop

Udaltop Euskara teknikarien jardunaldien 11. edizioari hasiera emango zaio. Aurten *Elkar ulertzetik elkarrekin lan egitera... Ados?* du izenburua. Manuel Lekuona kultur etxea, 09:00etatik 16:30era.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Another day of life (JBGA)
Ostirala: 22:00.

HERNANI

BITERI

Vitoria 3 de Marzo
Ostirala: 22:30.
Larunbata: 22:30.
Igandea: 19:30
Astelehena: 16:30.

ANDOAIN

BASTERO

Mia y el león
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

Vitoria 3 de Marzo
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:00.

USURBIL

SUTEGI

Soinujolearen semea
Ostirala: 20:00.

URBIL

Pokémon: Detective Pikachu
Ostirala: 16:00, 16:55, 18:15, 19:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Larunbata: 16:00, 16:55, 18:15, 19:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Igandea: 16:00, 16:55, 18:15, 19:15, 20:30, 22:45.

Timadoras compulsivas

Ostirala: 16:00, 17:55, 20:05, 21:40, 23:45.
Larunbata: 16:00, 17:55, 20:05, 21:40, 23:45.
Igandea: 16:00, 17:55, 20:05, 21:40.

Vengadores:

Endgame

Ostirala: 16:20, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:30, 23:40.
Larunbata: 16:20, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:30, 23:40.
Igandea: 16:20, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:30.

Los hermanos Sisters

Ostirala: 22:15, 00:45.
Larunbata: 22:15, 00:45.
Igandea: 22:15.

La pequeña Suiza

Ostirala: 22:35, 00:35.
Larunbata: 22:35, 00:35.
Igandea: 22:35.

Lo dejo cuando quiera

Ostirala: 15:45, 20:35.

22:45, 00:55.

Larunbata: 15:45, 20:35, 22:45, 00:55.
Igandea: 15:45, 20:35, 22:45.

Mia y el león blanco

Ostirala: 16:50, 20:25.
Larunbata: 16:50, 20:25.
Igandea: 16:50, 20:25.

UglyDolls: extraordinariamente feos

Ostirala: 16:00.
Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

Cementerio de animales

Ostirala: 22:40, 00:50.
Larunbata: 22:40, 00:50.
Larunbata: 22:40.

Dumbo

Ostirala: 18:05.
Larunbata: 18:05.
Igandea: 18:05.



LABURPENA

Another day of life (JBGA)

Zuzendaria: Raul de la Fuente eta Damian Nenow. **Gidoilaria:** Raul de la Fuente, Niall Johnson, Amaia Ramirez, David Weber, Damian Nenow, Ryszard Kapuscinskiren nobelaren oinarritua. **Herr.:** Espainia (2018). **Musika:** Mikel Salas. **Argazkia:** Raul de la Fuente eta Gorka Gomez Andreu. **Iraupena:** 82 minutu.

Gudaren iluntasunera bidaia

Okendo zinema taldearen eskutik, *Another day of life* filmaz gozatzeko aukera izango da. Hainbat sari lortu ditu filmak, 2018ko Europako animaziozko film onenaren saria, animaziozko film onenaren Goya saria eta Donostiako 66. Zinemaldian ikusleen saria, besteak beste.

Raul de la Fuentek eta Damian Nenowek zuzendu duten animazio filmak da. Ryszard Kapuscinskiren *Another day of life* liburuan oinarritzen da. Angolako independentzia eta ondorengo gerra ditu ardatz. Istorioa kontatzeko animazioa, artxiboko

irudiak eta elkarrizketak uzartu ditu filmak.

Kapuscinski poloniar berriemaile bat da, idealista eta alferrikako kausen zalea. 1975ean Angolara, Gerra Hotzaren azken gudu-zelaira, bidaiatuko du. Han, okerreko agur bat egin eta bizia gal dezakezu. Afrikako herrialdeak eta bere abenturan ezagutuko dituen pertsonak –adibidez, Carlota gerrillari karismaduna– betirako aldatuko dute Kapuscinski. Bidaia horrek idazle bihurtuko du kazetaria.

Jatorrizko hizkuntzan eskainiko da gaztelaniazko azpidatatzikiekin.

Bideo TIEN 21 Lagunak



Etxekotresna elektrikoetan adituak



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Udaberriko TOP 21 maiatzean! aukera!

Etxekotresna elektrikoetan aukera zabalena prezio onenean!

Telebistak Garbigailuak Hozkailuak Labeak Bitrozeramikak

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

kon2natu

erreflexuen aurkako graduatuak + eguzkitako graduatuak

99€

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

2019ko Udaberri Festa

maiatzak 17^{eta} 18



- Eskaintzak
- Puzgarriak
- Emanaldiak
- Marrazki erakusketa
- Txu-txu trenak
- Ekintzak
- Haur eta Helduentzat



Anima zaitetz eta parte hartu!

